

«Miracolo, miracolo»

Joxean AGIRRE

A skotan ikusi dut erromako zubia Getariako San Anton mendia-
ren gainean Zarauzko ma-
lekoitik. Behin, San Genaroren
odola mugitu egiten zela ikusi nuen
nengo lekutik pare bat metrora, Napoliko
katedralean, eta «*miracolo, miracolo*»
egin nuen deiadar, mundu guztiak hori-
xe egiten zuelako. Pare bat aldiz ikusi
nuen Maritxu Geller, Uliako Maritxu, ta-
rota botatzen, eta behin Soütako Magda-
leine bere tabernan nire etorkizuna ira-
kurri ahal izateko izpirituei kontsultak
egiten. “Preu” egin nuen urtean Imanol
etorri ohi zen tarteka Lasarteko gure
ikasle-pisura, eta afalondoa kantaldia
eman eta ez zuela inoiz diskorik grabatu-
ko esaten zigun, sistemarekin ez kolabo-
ratzeko. Askotan ikusi nuen Oteiza bere
bastoiarekin etxe aurreko kalean barre-

na paseatzen. Behin baino gehiagotan
egon naiz Joxe Agirrerekin berriketan
Oranda baserriko atarian eserita, behiak
larrean ari ziren bitartean. Gizon bat iku-
si nuen gaztea nintzela errepide bazte-
rreko auto istripu baten ondorioz poliki-
poliki hiltzen, eta pare bat astez izugarri
poliki gidatu nuen. Itsaso txarra zegoen
goiz batean emakume bat eta bi mutiko
eraman zituen korronteak Zumaian, eta
mutiko bat ateratzea egokitu zitzaidan.
Zoriontzen ninduten arren, traumatikoa
izan zen niretzat, bidean itotzen ari zela
ohartzen nintzelako, baina orain mutiko
hura emaztea eta bi haurrekin ikusten
dut tarteka kalean. Alaba jaiotzen ikusi
nuen etxeko egongelan, laguntzera eto-
rri ziren bi medikuak tarteka telebistari
erreparatzen zioten bitartean, futbol
partida garrantzitsu bat jokatzeko ari zi-

relako. Pare bat aldiz afaldu nuen Pari-
sen Peillenen etxean Jon Miranderekin.
Lehenengotako kazetariak izan ginen Ja-
vier Gallego argazkilaria eta biok,
1985ean, Oiz mendian Boeing 727 bat
erori zenean gertalekura iristen, eta 147
lagunen gorpuzkiak zuhaitzetatik zintzi-
lik ikusi ondoren, orrialde bat idatzi
nuen ‘*dantesco*’ hitza erabili gabe. Behin
Copperfielden ikuskizun baten kronika
egitera Anoetako belodromora joan eta
morroiak gure amaren izena zein zen as-
matu zuen, eta pantaila handian “Maria
Odriozola” idatzi zuen. Hauteskunde
autonomikoak aurki iritsiko dira EAEn,
eta EH Bildu EAJrekin berdintzen ikus-
ten badut, «*miracolo, miracolo*» egingo
dut deiadar, San Genaroren odola bere
kristalezko ontzian mugitzen ikusi nue-
nean bezalaxe. •

Letrei letrak eta hitzei hitzak

B i lerrok definitutako lerroak zi-
tuzten koadernoak erosteko
esaten ziguten eskolan. Esaten
zieten, gurasoei. Idaztea ma-
rrazketa ariketa bat zen garai hartan, ar-
belean idatzitako “a” borobilak eta “t”
luzangak kopiatzen genituen lerroz le-
rro, markatutako tartetik atera gabe.
Pixkanaka ikasi genuen letrei letrak
eransten eta hitzei hitzak oparitzen. Jo-
las polita zen; ez dut asperdurarik eta
esku nekaturik akorduan. Uste dut gus-
tura ikasi nuela idazten.
Helduak izateko antsiaz iratzarri gi-
nen goiz batean, zortzi-bederatzi urtere-
kin, gure gelako hiruzpalau laguni otu
zitzaigun paper inprimatueto-
ko letra as-
koz serioago hura imitatu behar genuela.
Ondoko laguna animatu nuen propo-

samena egin zezan, baimena eska ze-
zan; besteren baimena zen garai hartan
zernahitarako lehen baldintza. Eta ira-
kasleak ezetz: erakutsi ziguten kaligrafia
lotua erabili behar genuela. “Pikatu”
egin ginen. Orduan, umearen errebel-
dia burugogorrean, gureari eutsi genion: le-
tra mota berri eta *guaia* erabiltzen ge-
nuen egunero-egunero; hala egiten ge-
nituen eskolako ariketak, etxeko lanak...
eta azterketetan, badaezpada, irakaslea-
ren esana obeditzen genuen.
Momenturen batean esango zuten
listo, ikasi genuela idazten. Utzi zioten
gure koadernoak begiratzeari, eta orain
inork ez du erakutsi ziguten bezala
idazten.
Gerora askotan egon izan naiz nire
idazkerari begira. Saiatu naiz eskuak

eginiko letrak formaz aldatzen, fintzen,
luzatzen, mardultzen, ñimiñotzen, han-
ditzen, etzaten, zuzentzen, borobiltzen...
Institutu garaietan, maiztasun handiz
agintzen nion eskuari alda zezala letra
tipoa, saia zedila horrela, eta gero horre-
la. Erreportaje batean irakurri berri dut
idazkerak eskuaren jabeaz informazio
asko eman dezakeela. Pertsona baten
nortasuna eta aldarteak ezagutzeko au-
kera ematen duela grafologiak. Eta nire
eskuak, azken lauzpabost urteotan, letra
tipo bertsua darabil letrei letrak eta hi-
tzei hitzak gehitzeko; ez dakit horrek
zer esan nahiko duen. Agian heldu
bihurtuko ginen horretarako antsiarik
batere geratzen ez zitzaigun gazte obe-
dienteak. Auskalo, baina, grafologo ba-
tek zer liokeen. •

Maddi Aiestaran
Iparragirre